AGINTARIAK ETA LANGILERIA

Izendapenak, egoerak eta gorabeherak

JUSTIZIA ETA HERRI ADMINISTRAZIO SAILA

3570

AGINDUA, 2012ko uztailaren 20koa, Justizia eta Herri Administrazioko sailburuarena, uztailaren 21eko JUS/2371/2011 Aginduaz Euskal Autonomia Erkidegoan dei egindako hautaprobak gainditu dituzten Prozesu eta Administrazio Izapidetzaren Kidegoko funtzionarioei (barne sustapeneko txanda) destinoak esleitzeko dena.

Justizia administrazioaren zerbitzupeko funtzionarioak lanera sartzeko, lanpostuak hornitzeko eta lanpostuz igotzeko arautegia onartzen duen abenduaren 7ko 1451/2005 Errege Dekretuaren 28. eta 29. artikuluetan ezarritakoarekin bat etorriz, 2012ko uztailaren 20ko Aginduaren bidez Prozesu eta Administrazio Izapidetzaren Kidegoko karrerako funtzionario izendatu diren Justizia Administrazioko Prozesu eta Administrazio Izapidetzaren Kidegoko kideei (barne sustapeneko txanda) I. eranskinean zerrendatzen diren organo judizial eta fiskaletan destinoak esleitzea ebatzi dut, honako hauek kontuan hartuta:

Lehenengoa.– Agindu honen bidez lantokia esleitzen zaien Prozesu eta Administrazio Izapidetzaren Kidegoko funtzionarioek hogei egun naturaleko epean hartu beharko dute jabetzan beren kargua, agindu hau Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta biharamunetik hasita, edo, Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian eta Estatuko Aldizkari Ofizialean batera argitaratu ezean, Estatuko Aldizkari Ofizialean argitaratzen den egunetik zenbatzen hasita, aipatutako errege-dekretuaren 29. artikuluan xedatutakoaren arabera. Lanpostu-jabetzea Bulego Judizial eta Fiskalaren zuzendariaren edo Gipuzkoa, Bizkai eta Arabako EATeko funtzionario delegatuaren aurrean egingo da, esleitutako lantokiari dagokion lurraldearen arabera.

Bigarrena.– Agindu honen bidez destinoa esleitzen zaien funtzionarioek Laguntza Judizialeko Kidegoan jardunean jarraitzea erabakitzen badute, ez dute joan beharko esleitutako lanpostuaz jabetzera. Nahikoa izango dute, lehenengo atalean aipatutako jabetze-epean, Bulego Judizial eta Fiskalaren Zuzendaritzari jakinarazten badiote erabaki hori hartu dutela, Botere Judizialari buruzko uztailaren 1eko 6/1985 Lege Organikoaren 506.d) artikuluan aurreikusitako borondatezko lan-eszedentzia deklaratu ahal izateko. Borondatezko eszedentzia deklaratzen duen ebazpenaren kopia Justizia Administrazioaren Giza Baliabideen Zuzendariordetza Orokorreko Langileen Erregistro Nagusira bidali beharko da.

Hirugarrena.– Funtzionarioek Prozesu eta Administrazio Izapidetzaren Kidegoan sartu, eta Justizia Administrazioan betetako zerbitzuen iraupenean egon daitezkeen hutsuneak saihestu nahi badituzte –lanpostuaz jabetzeko behar besteko denbora behar baitute–, Bulego Judizial eta Fiskalaren Zuzendaritzari egun bateko baimen ordaindua eska diezaiokete, herriz aldatu beharrik ez badute, eta, betiere, Laguntza Judiziala Kidegoko funtzionario lantokia Euskal Autonomia Erkidegoan badute; edo bi egunekoa, kontrako kasuan. Kanariar eta Balear uharteetatik, Ceutatik edo Melillatik etorri behar dutenek hiru eguneko baimena izango dute kargu berriaz jabetzeko.

Funtzionarioak beste Lurralde Kudeatzailetza batetik edo giza baliabideen gaineko eskumena duen beste autonomia erkidego batetik badatoz, agiri horiek organo horiei helarazi beharko dizkiete, Prozesu eta Administrazio Izapidetzaren Kidegoan lanpostuaz jabetzen diren egun

berean Laguntza Judizialeko Kidegoan borondatezko eszedentzia eta kargugabetze automatikoa ofizioz eman diezazkieten eta, hartara, ordainsarien ordainketan etenaldirik gerta ez dadin.

Nolanahi ere, jabetzea bideratu eta gero, kasuan kasuko EATko arduradunak jabetze-agiriaren bi ale bidaliko dizkio Bulego Judizial eta Fiskalaren Zuzendaritzari, horren ondorioz nominan egin beharreko aldaketak egin ditzan. Zuzendaritza horrek ale bat Justizia Administrazioaren Giza Baliabideen Zuzendariordetza Orokorreko Langileen Erregistro Nagusira bidaliko du. Beste ale bat interesatuari emango zaio. Eta laugarren alea, dagokion EATn jasota gera dadin.

Laugarrena.– Prozesu eta Administrazio Izapidetzaren Kidegoko lanpostu berrian gelditzea aukeratzen duten funtzionarioek, lanpostuaz jabetzen direnetik, martxoaren 10eko 364/1995 Errege Dekretuko bosgarren xedapen gehigarrian ezarritako baimen ordaindua hartzeko eskubidea izango dute. Baimen horretatik agindu honetako hirugarren idatzi-zatian aipatzen diren egunak kenduko dira.

Bosgarrena.– Onartutako hautagaiei esleitu zaizkien lanpostuetan dauden bitarteko funtzionarioek titularra lanpostuaz jabetzen den egunean utziko dute lanpostua.

Seigarrena.– Agindu honen bidez destinoa esleitzen zaien Prozesu eta Administrazio Izapidetzaren Kidegoko funtzionarioek, kalifikazio-hurrenkera dela-eta destinoa derrigorrean esleitzen bazaie ere, agindu honen datatik zenbatzen hasita bi urte igaro arte ezin izango dute lekualdatze-lehiaketetan parte hartu. Bi urte horiek zenbatzeko, Botere Judizialaren uztailaren 1eko 6/1985 Lege Organikoaren 529.3 artikuluko bigarren paragrafoan xedatutakoari jarraituko zaio.

Zazpigarrena.– 2012ko uztailaren 4ko Aginduaren bidez izangaiei eskaini, baina ebazpen honetan esleitu gabe geratu diren lanpostuek bete gabe jarraitzen dute, eta txanda libretik Prozesu eta Administrazio Kudeaketako Kidegoan sartu nahi duten izangaientzat gordeko dira.

Agindu honen aurka, interesdunek aukerako berraztertzeko errekurtsoa aurkez diezaiokete Justizia eta Herri Administrazioko sailburuari, hilabeteko epean; bestela, administrazioarekiko auzi-errekurtsoa aurkez dezakete, Euskal Autonomia Erkidegoko Auzitegi Nagusiko Administrazioarekiko Auzietako Salan, bi hilabeteko epean. Agindua Estatuko Aldizkari Ofizialean argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera zenbatuko dira epeak bi kasuetan.

Vitoria-Gasteiz, 2012ko uztailaren 20a.

Justizia eta Herri Administrazioko sailburua,
IDOIA MENDIA CUEVA.

I. ERANSKINA

KIDEGOA: PROZESU ETA ADMINISTRAZIO IZAPIDETZA (BARNE-SUSTAPENA)

Hurrenkera zk.	IFZ	Abizenak	Izena	Esleitutako Destinoa	Udalerria	Lurraldea	Lanpostua	Dotazioa
1	30654881-K	Gea Cámara	Yolanda	Lan Arloko 7 zk.ko Epaitegia	Bilbao	Bizkaia		
2	30641279-N	Fernández Díez	Enrique	Lehen Auzialdiko 13 zk.ko Epaitegia	Bilbao	Bizkaia		
3	29034416-K	Zamora San Pedro	Javier	ZULUPeko Kide Bakarreko Organo Mistoa	Amurrio	Araba	580001	7
4	30683676-C	Iturriondobeitia Madariaga	Alazne	Instrukzioko 5 zk.ko Epaitegia	Donostia-San Sebastián	Gipuzkoa		
5	44011138-V	López Edo	Tania	Instrukzioko 2 zk.ko Epaitegia	Donostia-San Sebastián	Gipuzkoa		
6	15369694-J	Arrazola Ochoa	Amaia	Zerbitzu Erkide Prozesala-Betearazpen Atala	Eibar	Gipuzkoa	580003	5
7	30620317-A	de la Hera Rodrigo	Eva María	Zigor Arloko 7 zk.ko Epaitegia (Betearazpenak)	Bilbao	Bizkaia		
8	72392287-V	Fuente Miguel	Belén	Lehen Auzialdiko 14 zk.ko Epaitegia	Bilbao	Bizkaia		
9	16284692-W	Díaz López de Arroyabe	Olga	Emakumearen Gaineko Indarkeria Arloko 1 zk.ko Epaitegia	Barakaldo	Bizkaia		
10	16282922-A	Varga Mediavilla	Javier	ZULUPeko Kide Bakarreko Organo Mistoa	Eibar	Gipuzkoa	580001	19
11	16262118-Z	Sainz Breton	María José	Zerbitzu Erkide Prozesala-Atal Orokorra	Azpeitia	Gipuzkoa	580003	3
12	72720308-N	Arroniz Vidaurre	Rubén	Instrukzioko 3 zk.ko Epaitegia	Donostia-San Sebastián	Gipuzkoa		
13	30595657-E	Vega Iglesias	Jon	Zigor Arloko 1 zk.ko Epaitegia	Donostia-San Sebastián	Gipuzkoa		
14	16290954-P	García Galan	Elena	Probintzia Auzitegia: 2. Sekzioa	Donostia-San Sebastián	Gipuzkoa		
15	47678514-C	Molina Martín	Verónica	Zigor Arloko 3 zk.ko Epaitegia	Donostia-San Sebastián	Gipuzkoa		
16	20168451-G	Álvarez González	Rosa María	Administrazioarekiko Auzietako 3 zk.ko Epaitegia	Donostia-San Sebastián	Gipuzkoa		
17	14592471-Y	Llorente Ferrero	Maria Asunción	Probintzia Auzitegia: 3. Sekzioa	Donostia-San Sebastián	Gipuzkoa		
18	22735506-Y	Vivo Andreu	Verónica	Lan Arloko 5 zk.ko Epaitegia	Donostia-San Sebastián	Gipuzkoa		
19	25442567-J	Aina Rodríguez	María Virginia	Lan Arloko 5 zk.ko Epaitegia	Donostia-San Sebastián	Gipuzkoa		